

HKEE-REN PRENTSA OHARRA, GIPUZKOAKO LURRALDE HISTORIKOAREN KONTU OROKORRAREN FISKALIZAZIO TXOSTENARI BURUZKOA, 2017

Joan den apirilaren 4an Herri-Kontuen Euskal Epaitegiaren Osoko bilkurak Gipuzkoako Lurralde Historikoaren (GLH) 2017ko Kontu Orokorraren fiskalizazio txostena onartu zuen; Kontu Orokorra osatzen dute Gipuzkoako Foru Aldundiaren kontuek (GFA), foru erakunde autonomoen kontuek (Uliazpi Fundazioa eta Kabia), haren sozietate publikoen kontuek (IZFE, Bidegi eta Etorlur Gipuzkoako Lurra) eta foru fundazioek (Kiroldgi eta Sueskola Gipuzkoa). Txostenari Osoko bilkurako kontseilari batek boto partikularra jarri dio.

HKEEk aldeko iritzia plazaratu du Gipuzkoako lurralde historikoaren gainean, unean uneko salbuespenak azpimarratu dituela. Bada, txostenak kontularitzako hainbat doiketa jaso ditu, GFAREN Diruzaintza Geldikina 17,8 milioi euroan handituko luketenak. Gainera, ezin zehaztu izan dira GFAko balantzeko eta Etorlurren aktibo arrunteko ibilgetu material eta ukiezineko zenbait kontu-sail.

Txostenak fiskalizazio-gai izan den Kontu Orokorraren finantza egoera aztertu du eta azpimarratu du diru-bilketak gora egin duela eta horrek bide eman duela zorpetzea handitu gabe inbertsio errealean exekuzioa areagotzeko eta 18 milioi euroren emaitza sortu duela ekitaldian. Berebat, gora egin du erabili gabeko kreditu eragiketekin bateratutako Diruzaintza Geldikinak. Baliatutako zorpetzea 55 milioi euroan murriztu da.

Epaitegiak, halaber, aurrekontuaren egonkortasun eta finantzaren iraunkortasun helburuak bete direla adierazi du. GFAk Kontu Orokorrean jasotako Aurrekontuaren Egonkortasunari buruzko txostena Ogasun eta Administrazio Publikoen Ministerioari igorri dio eta administrazio honek ez du salbuespenik adierazi.

Fiskalizatutako erakundeek zuzentasunez bete dute euren ekonomia eta finantza jarduera arautzen duen **lege arautegia** eta unean uneko akatsak azaleratu dira Langileriaren atalean (enplegatuei ordaindutako ordainsari jakin batzuetan PFEZa salbuestea) eta Administrazioako kontratazioaren atalean (gizarte zerbitzuetako kontratu bat ez da prozedura ireki bidez esleitu, guztira 0,7 milioi euroren zenbatekoan, eta 5

zerbitzu-kontratutan, guztira 3,6 milioi euroren zenbatekoa egin dutenetan, lizitazio prozedura atzerapenez abiarazi da).

Bestetik, HKEEk ezin egiaztatu izan du Bidegik hiru lanpostu betetzeko bideratutako hautaketa-prozesua, kanpoko enpresa aditu baten bitartez gauzatu dena.